


40 urte Jakintza Ikastolan Antton Amondarain, Mikel Igartua eta Arrate Izagirre “Berriz eskainiko baligute aukera bera egingo genuke”

Elkarrizketa Garazi Otegirentzat aurtengo Ohorezko matrikula

Ikasleen txokoa Sari garrantzitsuak

Ekainaren 19an Ikastolaren Eguna



jakintzaikastola

agenda

APIRILA**HAUR HEZKUNTZA:**

4 urtekoak: Ordiziako dendak aztertzea irteera.
3, 4 eta 5 urtekoak: baratzeko landareak erostera azokara.

4 urtekoak: Unanue gozogintza lantegira bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailakoak: Oiasso erromatar museora bisita.

DBH:

DBH 1, 2 eta 3koak: zine emanaldia (Slumdog millionaire).

DBH 1. maila: irteera Arriarango urtegira eta Legorretako araztegira.

DBH osoa: Piropo Lehiaketa eta sari banaketa.

DBH 4. maila: zine emanaldia (Jovenes oportunidades).

BATXILERGOA

BATXI 1: gurasoein bilera sexu-heziketa ikastaroko emaitzei buruz.

MAIATZA**HAUR HEZKUNTZA:**

5 urtekoak: Zabalegi baserrira bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Okorroko parkera bisita "Naturaren Sekretuak" aztertzea.

1. maila: naturaz gozatuz Arramendi baserrira arratsalde pasa.

2. maila: Oiangura irteera naturaren elementu ezberdinak aztertzea.

2. maila: irratsaioen grabaketak.

3. maila: "AIKUR"era bisita (Erleen museoa).

6. maila: Bertso jaialdia.

DBH:

DBH 4. maila: Jakintza batxilergoaren informazioa ikasleei eta gurasoei.

DBH 4: KOSMODISEA lehiaketaren sari banaketa.

EKAINA**HAUR HEZKUNTZA**

2 urtekoak: Baliarrainera irteera.

3, 4 eta 5 urtekoak: Hondarribira irteera.

Haur guztientzat: Ikastolako Urteko Festa.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. maila: kurtso bukaerako irteera Eginora eta Nestle izozkien lantegira.

3., 4., 5. eta 6. mailak: ikasturte amaierako irteera.

Haur guztientzat: Ikastolako Urteko Festa

DBH:

DBH 1. maila: ikasturte amaierako irteera Villañaera.

DBH 2. maila: ikasturte amaierako irteera Otxagira.

DBH 3. maila: ikasturte amaierako irteera Oyamberra (Santander).

DBH 4. maila: ikasturte amaierako irteera Saloura.

Denentzat: Ikastolako Urteko Festa.

BATXILERGOA:

Denentzat: Ikastolako Urteko Festa

Ateak

Udako urtaroari ateak irekitzearekin batera, ikasturtearen ate nagusiak poliki poliki ixten hasten gara. Gure gorputzean beroa eta sargoria sentitzen dugun honetan, gure animoak beste norabide batzuk hartzen dituzte eta batzutan, zuzen edo oker, uste dugu zoriona gertuago dugula.

Esan bezala, ikasturteko ateak itxiko ditugu baina udan izango dira beste zeregin batzuk. Zorionez, eskola bakarrik ez da heziketaren esparrua eta eskolaz kanpo suertatuko dira gainditu beharreko beste egoera franko. Honela ere asko ikasten da. Ea airosos ateratzen garen horietatik ere!

Amaitzeaz dagoen ikasturteak emozio eta sentipen ugari ekarri dio Jakintzako komunitateari. Arrate, Antton eta Mikel, jubilazioaren helmugara heldu dira. Bejondeiela! Beraien bizitzaren zati garrantzitsua Jakintza ikastolari eskaini dioten hiru irakasle hauek, eredu ezin hobekak dira geure zeregin heziketa arloraz zuzentzen dugunontzat. Mila esker, Jakintzaren izenean.

Bizitzaren aurrean topatzen ditugun ateak, etengabe dihardute ireki eta itxi. Jakintzako ez da itxiko zuentzat, maiztasun kontua bakarrik izango da aldatuko dena. Bestalde, aldaketa honek, beste ate batzuen maiztasuna areagotzeko balio dezala eta egunsenti bakoitzean, sortuko zaizkizuen ilusio eta

erronkei aurre egiterakoan, zorterik onena hiruroi eta noski, adiorik ez!

Con la llegada del verano nos vamos despidiendo poco a poco del curso y las puertas se nos abren hacia otras direcciones que con el calor y el bochorno propios de la época, creemos, a veces erróneamente, nos traerán la felicidad. Afortunadamente, la escuela no es el único lugar de aprendizaje, sino que fuera de ella, también nos encontraremos con diferentes situaciones a superar y ..!Así también se aprende!

El curso que finaliza ha traído consigo muchas vivencias y sentimientos a la comunidad de Jakintza. Arrate, Antton y Mikel han llegado a la meta de su jubilación.

Muchas gracias, en nombre de la comunidad de Jakintza ikastola, por el trabajo realizado a lo largo de todos estos años.

Arrate, Antton y Mikel, que han dedicado parte importante de sus vidas a Jakintza Ikastola son un referente a seguir para todos nosotros. Las puertas de Jakintza estarán siempre abiertas para vosotros, sólo cambiara la frecuencia . Que este cambio sirva para la apertura de otras puertas , para las ilusiones y retos que os surjan a cada amanecer.

¡Suerte y disfrutad!

Irailean noiz?

Kostata baina aurten ere iritsi dira udako oporrak. Orain luzeak diruditen arren, beti bezala iritsiko da iraila. Ondorengo taulan ikus dezakezue etapa bakoitza noiz hasiko den irailan.

Etapa	Datak	Orduetgia
Haur Hezkuntza	Irailaren 9tik-24ra	Goizeko 9etatik 12:30etara
	Irailaren 27tik aurrera	Goiz eta arratsalde
Lehen Hezkuntza	Irailaren 9tik-24ra	Goizeko 9etatik 12:30etara
	Irailaren 27tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 3an aurkezpena	Goizeko 11:00tan
	Irailaren 6tik-24ra	Goizeko 8:30etatik 14:30etara
	Irailaren 27tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 10ean aurkezpena	Goizeko 11:00tan
	Irailaren 13tik aurrera	Orduetgi arrunta

Lana da sari, bidea lokarri

Jakintzan, eguneroko lanean, lehen-tasunetako bat da euskararen erabilera bultzatzea. Eta erabilerak bi alde ditu: ahozkoa eta idatzizkoa.

Lanketa horiek bideratzeko kanpotik eskaintzen zaizkigun aukera eta baliabidez ere aprobetxatzen gara. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak indarrean dituen bi lehiaketa hauetan parte hartzen dugu: Urruzuno lehiaketa idatziaren atalean eta Abelino Barriola lehiaketa ahozkoarenean.

Bada, berri pozgarriak jaso ditugu. Ikasturte honetan ere Abelino Barriola saria irabazi dugu, eta aurten DBH 2 B taldea izan da garaile. Eta Urruzuno lehiaketan, berriz, Lierni Garmendia eta



ABELINO BARRIOLA LEHIAKETAREN IRABAZLEAK.

Beñat Irastorza izan dira sarituak. Gainera, Beñat bigarren urtez hautatu dute sarituen artean. Zorionik beroena guztiei.

Egindako lanaren errekonozimenduak bide onetik goazela adierazten digu. Ea

ondorengo ikasturteetan ere bide beretik jotzen dugu.

Dentro del proyecto educativo de Jakintza, se da prioridad al uso del euskara oral y escrito en el día a día. Hemos participado en los concursos que ofrece el Departamento de Educación del Gobierno Vasco: Urruzuno (narrativa) y Abelino Barriola (declamación) con excelentes resultados.

Los alumnos de 2ª B de ESO han sido galardonados en el certamen Abelino Barriola y a nivel individual, Lierni Garmendia y Beñat Irastorza han ganado el premio Urruzuno.

¡Animo y enhorabuena a todos! Os lo merecéis.

URRUZUNO SARIKETA: Ondo egindako lanak fruituak saritzat

Gizakia omen da zulo berean birritan erotzen dena. Baina zuloa gozoa eta gustukoa denean, ongi etor bedi erorketa. Hori gertatu da aurten ere URRUZUNO lehiaketako emaitzekin. Iazkoa errepikatuz, Beñat Irastorza izan da garaitetako bat. Bestea, lehen aldiz, Lierni Garmendia. Euren lanez eta asmoez zerbait gehiago jakiteko gogoz eurengana hurbildu gara.



LIERNI GARMENDIA.

Lierni, bagenekien gustuko zenuela irakurtzea eta idaztea. Hortik Urruzuno lehiaketan horrelako saria jasotzera jauzi handia dago. Zer diozu? L: Idazleak irakurle ona behar du izan; irakurketa da

idazteko lehen urratsa. Baina argi dago Urruzuno bezalako idaz-lehiaketa batean saritua izateko ondo idaztea ez dela nahikoa; istorio on bat behar da, originala eta berritzailea. Horri jarraituz sortu nuen nirea.

Nola sortu eta gauzatu da aurkeztu zenuen testua?

L: Hasieratik argi izan nuen ideia on batetik abiatu beharko nuela. Ordu dezentetako loa kosta zitzaidan ideia hori aurkitzea. Behin istorioaren oinarria izanik,

pixkanaka hau janzteari ekin nion; nahiago izaten baitut idazten hasi aurretik ideia guztiak ondo lotuta eduki.

Ohoreaz gain, hamar eguneko bidaia izango duzu(e) Galiziara. Pozik? Asmo berezirik?

L: Ilusio handiz hartu dut. Idaztezaletasuna areagotu egiten du horrenbeste saiatzeak benetan merezi izan duela jakiteak. Azken batean, horixe da era honetako lehiaketen helburu nagusia.

Beñat, hire kasuan, lehen sariak bigarrena ekarri du errenkadan. Beraz, zorte hutsa ez da. Nola hartu duk?

B: Lehenengoa bezalaxe: ezustean baina alaitasunez. Pozgarriagoa da aurreko urteko beste zenbaitek ere jaso dutela eta berriz ere elkartuko garela jakitea.

Aurreko aldizkarian aipatu huen aurreko protagonista idazlea eta bere alaba zirela. Metaliteratura ere aipatzen huen. Zerbait gehiago esaterik?

B: Bi elementu horiez gain, istorioan abesti bat txertatzen saiatu naiz. Zaila izan da, baina ongi atera dela dirudi.



BEÑAT IRASTORZA.

Aurten lankide bat ere izango duk hirekin. Zer esango hieke Jakintzako ikasleei sari honetaz? Nola animatuko hituzke?

Denek egin beharko lukete saiakera bat. Ez du asko eskatzen istorio bat idazteak eta saria izugarria da.

Como consecuencia del trabajo realizado a lo largo de su etapa educativa, Lierni y Beñat han empezado a recoger sus frutos. Ambos han sido ganadores del concurso Urruzuno.

Para Lierni "un escritor tiene que ser buen lector. Leer es primordial para coger buena base para escribir. Pero está claro que para ganar un concurso así no basta con escribir bien sino que se necesita una buena historia, original e innovador". Lierni Tenía claro que debía partir de una buena idea. "Me costó trabajo conseguirla pero al final llegó. El premio me ha hecho mucha ilusión. Además, saber que tu trabajo es valorado te da ánimos para seguir escribiendo".

Para Beñat es ya su segundo premio, ya que el año pasado también fue galardonado. Beñat está contento por ello, aunque el premio le ha pillado por sorpresa. Con serenidad, el autor lanza un mensaje a los alumnos de Jakintza: "Les animaría para que, al menos, hicieran un intento. No tienen nada que perder y sí mucho que ganar".

40 urte JAKINTZA IKASTOLAN

Antton Amondarain, Mikel Igartua eta Arrate Izagirre

“Zuzendaritzak oso ondo markatu ditu ikastolaren lehentasunak azken urteotan eta horregatik gaude gauden tokian”

Krisi ekonomikoari aurre egiteko Espainiako presidente Zapaterok proposatu dituen neurriak bete betean harrapatu ditu Antton Amondarain, Mikel Igartua eta Arrate Izagirre. Hirurek jubilazioa hartuko dute ikasturte amaieran, baina lege aldaketak zalantzaren zurrumbiloan sartu ditu hirurak. Orota, 120 urteko esperientzia eskaini diote Jakintzari eta orain, horren gainean mintzatu gara haiekin.

Jose Luis Rodriguez Zapaterok krisiari aurre egiteko neurriak iragarri orduko gertaerak azkartu egin dira Jakintza ikastolan. Antton Amondarainek, Mikel Igartuak eta Arrate Izagirrek erretiroa hartuko dute ikasturte amaieran, 40 urte eta gero. Lege aldaketak harrapatuko dituen beldurrak jubilazioa ikasturtea amaitu aurretik sinatzera bultzatu ditu. Ez dute joateko presarik, badakite azken egunak direla, baina atzean uzten dutena ez da lantoki arrunta.

Kontuak ez ziren gaur bezalakoak orain 40 urte, eta eginbide honetan hasia soldata irabaztea baino gehiago izan zen Arrate, Mikel eta Anttonentzat. Gaur, lau hamarkada beranduago, orduko ilusio bera ageri dute garai haiek oroitzean. Antton Amondarain Tolosako Laskorainetik heldu zen Jakintzara 1970ean. Soldadutzatik itzuli zenean “ez gizendu eta ez gizondu”, Euskal Filologia ikasteko asmoa baztertu eta Gordailun –artearen ikastolen elkarte lana betetzen zuen erakundea– hasi zen testugintzan. Oso gutxira heldu zitzaion irakasle izateko aukera eta ez zuen dudarik egin. “Euskalgintzan zurrumbiloa bizi zen garai hartan –oso fresko du Anttonek une hura–. Baikortasun handia zegoen gizartean eta sentsibilitate hura genuenontzat aukera ezin hobea izan zen ikastolan lanean hasia”.



ARRATE IZAGIRRE, MIKEL IGARTUA ETA ANTTON AMONDARAIN.

Arrate Izagirrentzat kontuak bestela izan ziren. Gaztetan ikasteko gogorik ez eta amaren babesarekin ikasketak utzi zituen 16 urterekin. Tailer betean aritu zen lanean Jakintzan hasi aurretik. Ordiziako Santa Ana eta Urdaneta ikastetxeetako hurrei euskara irakasteko enkargua jaso zuen aurrena eta irakasle izatekoa ondoren; 1972. urtea zen. *"Sorpresaz hartu nuen irakasle izateko proposamena –oraindik harritu egiten dela dirudi–. Inoiz ez nuen pentsatu halako gaitasunik izango nuenik. Froga egiteko eskatu zidaten eta kurtso eta erdiko praktikak egin nituen Beasainen eta Lazkaon. Ikastolak legez-tatzeko bidean exijentziak handiak ziren eta haurtzaintza ikastaroa egin behar izan nuen lanean hasterako. Maisu-maistra ikasketak lanean hasi eta gero egin nituen eta oso gogorra izan zen hura; bi semeren ama nintzen ordurako".*

Mikel Igartuak Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Gijonen eta hura amaituta lan bila hasi zen. *"Lana lortu bitartean klase partikularrak eman nituen eta gustatzen zitzaidala ohartu nintzen. Ondoren urte-bete egin nuen enpresa batean. Ez nengoen gustura eta beste lan bat bilatzen hasi nintzen. Garai hartan, egunkarian, Jakintza ikastolan irakasle bat behar zutela irakurri nuen eta elkarrizketa egin ondoren nahi banuen atea irekita utzi zizkidaten. Momentu horretan nire ikuspegia honako hau zen: 'irakaskuntza gustatu egiten zait eta orain ez banaiz bide horretatik abiatzen, behin enpresa baten hasiz gero zaila izango da berriro holako aukera bat izatea eta gainera, enpresa batean lan egin nahi izanez gero, aurrerago ere aukerak izango nituela pentsatu nuen eta halaxe nintzen Jakintza ikastolan".*



MIKEL, ARRATE ETA ANTTON, HAUR HEZKUNTZAKO EGOITZAN.

Urte haietako egoera sozio-politiko aintzat hartu behar da irakasleon ahalegina neurtzeko. Euskararen inguruan kezka zuen ororentzat eremu emankorra zen ikastola. Atzo izan balitz bezala gogoratzen du Anttonek; orduko ilusio berarekin. *"Orduan uste genuen euskara eta euskaraz irakasteak ondorio biderkatzaileak izango zituela gizartean. Utopia zen noski, baina sinetsi egin genuen. Euskararekiko motibazioa zuen ororentzat ikastola zen barutzerik gustukoena eta zurrunbilo hark harrapatu egin ninduen".*

Ilusioa eta gogoia sobera zituzten baina eskaria eta eskaintzaren arteko aldea nabarmena zen Arratek kontatu digun bezala. *"Urte haietako gabeziatik ikasi*

genuen gaur garena izaten. Goierriko irakasleria materiala prestatzeko elkar-tzen ginen eskasiari aurre egiteko. Ez zegoen programaziorik, ezta metodologia pedagogikorik; beraz, bildu, aztertu, hausnartu eta gogoetak partekatzen genituen material hura osatzeko. Harro esan dezakegu metodologia berrien aintzindari izan zela ikastola".

Oinarritzko materiala egon bazegoen baina gaztelera hutsez guztia. Mikelentzat oztopo handia izan zen hura, baina gainditzeko ahalegin sendoa egiteko prestutatusuna izan zuen. *"Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin genituenontzat ez zen erraza izan irakasteko euskarara egokitzea. Termin-*


ARRATE IZAGIRRE (LAZKAO, 1950/05/31)

Ikastolan hasi nintzen garaian haur erdaldun asko iristen zen gurera. Haur haietako askok euskara ikastolarekin bakarrik lotzen zuten eta gogoan dut hesi hura gainditzeko egin genuen ekimen bat. 3 urteko 15 neska-mutikorekin Nafarroako Arizala herrira joan ginen lau egun pasatzera. Txangoaren helburua izan zen haur haiei erakustea euskara ez zela soilik ikastolan komunikatzeko hizkuntza;

euskaraz bizi zitekeela erakutsi nahi izan genien ume haiei. Lau eguneko elkarbizitza egin zuten euskara hutsez; esperientzia oso aberasgarria izan zen han izan ginen guztiontzat.

38 urteko ibilbidean anekdota asko izan ditut, baina niretzat bereziki polita dena aipatu nahi dut. 1972. urtean irakasle lanetan hasi nintzenean izan nuen lehen ikasle taldeko ikasleetariko biren alabak izan ditut azken ikasturte honetan nirekin. Ziklo bat borobiltzen duen gertaera dela

iruditzen zait eta urte asko pasa diren arren, hasiera haiek oroitzu bukatzeko aukera ematen dit honek.



logia ez genuen ezagutzen eta materialak gaztelaniaz zeuden arren, klasea euskaraz eman behar genuen, noski, hori baitzen funtsa. Baina garai hartan esan balidate guzti-guztia euskaraz izango zela, testuak eta klaseak, ez nuen baietz esango; ez nahi ez nuelako, ez nintzelako gai izango baizik”.

Ikastolen munduan izan diren aldaketa guztiak bizi izan ditu hirukoteak. Lehengo, eta orain arte nabarmenena agian, liburugintzarena izan zen. *“Lan personal handia zegoen orduan –aldarrikatu du Mikelek–. Horrek ez du esan nahi orain ez dagoenik baina egun nahikoa da interneten sartzea edozein gairi buruzko testuak euskaraz aurkitzeko. Guretzat izugarria izan zen liburugintzan eman zen salto”.*

Jendartearen konpromiso mailak ere aldaketa izan du ordutik; atzekoz aurrera baina.

“Ikastolaren inguruan zegoen inplikazio modua aldatu egin da. Lehengo gurasoak oso aktiboak izan ziren eguneroko beharrei erantzuteko orduan. Euskaldun sentitu eta euskara maite zuenarentzat ezinbestekoa zen proiektu hura propio sentitzea eta sentazio hori jasotzen genuen gurasoengandik zein herritarrengandik. Euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa mantentzen duten arren, gurasoen parte-hartzea beste era batekoa da egun, seme-alaben heziketari dagozkion kontuetan zentratuagoa”. Hiruak bat datoz honetan.

Gizartea aldatu den heinean aldatu da ikastola ere. Hasierako motibazioak profesionalizazioa ekarri du ondoren. Antton, Mikel eta Arratek garbi dute



Jakintza ikastolaren etorkizuna zein den. *“Motibazioa eta profesionalizazioa uztarri berean joan behar dira –adierazi du Anttonek kategorikoki–. Ikastolek lorpen maila handia lortu dute eta hasierako erradiografia egiten dugunean gauzak asko aldatu direla konturatzen gara; gizartean bezalaxe. Baina gu euskal kulturako profesionalak gara, ordainduak gainera, eta argi izan behar dugu garrantzitsuena euskara dela: irakasleok izan behar dugu euskaldutze prozesuaren dinamizatzaile nagusiak”.*

Ezinezkoa da gizartearen mugimendutatik eskola isolatzea. Arrate, Mikel eta Antton baikorrak dira etorkizunaz mintzo direnean. *“Konpetentziak moldaketa asko ekarri ditu eta berrikuntza planean ari da ikastola. Teknologia berrien inguruan salto kualitatiboa eman dugu azken urteetan eta horri esker punta puntako ikastetxea da gurea Euskal Herriko zenbait esparrutan. Guri horretara egokitzea tokatu zaigu baina egin dugu eta egiten ari gara. Hori oso inportantea da etorkizunera begira”.* Arrateren esana berretsi eta indarra emateko aho batez sinatzen dute hiruek Mikelek esana. *“Zuzendaritzak lanak ondo egin ditu eta Lehentasunak oso ondo markatu zituen; horregatik gaude gauden tokian”.*

Etorkizuna bermatuta dagoela diote. Gazteagoak prestatuago datoz eta haien esku izango da orain arteko lana hobetzea eta ikastolaren izaera indartzea. Gizarteak ez du bizi 70. hamarkadako konpromiso maila baina teknifikazioak eta borondateak ekarriko ditu orain arteko mailak lotzeko indar berriak. Horiek ez daude jada Antton, Mikel eta Arrateren esku. Hiruen artean 120 urte eman dituzte ikastolan eta lerrook

ANTTON AMONDARAIN (LEGORRETA, 1950/04/17)

Badut lagun bat bere lan ibilbidea deskribatzeko *‘Sancho el Fuerte’, ‘Sancho el Sabio’* eta *‘Sancho Panza’*-ren irudia erabiltzen duena. Hau da, lehen urteetan indartsu eta ametsez betea jo eta su dena hautsi eta irauli beharrean. Geroago, ez hain sutsu, baina horren ordez jakinduriak ematen duen berariazko lankerari lotuago. Eta azkenaldian, lasaitasunaren atzaparretan eroria.

Ni identifikatzen naiz lehen bi Sancho horiekin. Izan ere, ez dut esango nire lan ibilbideko azkenaldian zabarkerian igerian ibili naizenik. Baina, egia da txispa falta izan zaidala; alegia, txirindularien mundura egokituz, noizbait ibiliko nintzen tropeletik tiraka, baina azkenaldian lanak izan ditut tropeleko azkenekoaren gurgpilari jarraitzeko, arnasestuka bada ere.

Agurtzerakoan, gurasoak, ikasleak eta

lankideak ditut gogoan. Urte luzeak eta ugari igaro ditugu elkarlanean eta egindakoa partekatzen. Beraz, ar itzazue gogoan ondo egindakoak, eta barkatu hutsegiteak.



irakurtzen ari garenean azken egunak izango dituzte haien bigarren etxean. Ikastolak zer eman dien galdetu diegu; begietan dizdirak nabari dira. "Abiapuntuan, bizitzeko aukera ekonomiko bat –diosku Anttonekin–. Jarraian, batez ere gustuko lanak dakarren asebetetzea. Ez dut damurik ikastolan hainbeste urte eman izanaz. Ez dakit norainoko ekarpena egin dudan, edonola ere, aukera eman dit eukararen inguruan nuen konpromisoa gauzatzeko. Ikasleekiko harremanak gazi-gozaok izaten dira beti baina gozotik ghiago izan du gazitik baino".

Mikelentzako berezia izan da. "Niri asko eman dit. Nik kanpoan ikasi nuen eta euskara oso urruti izan nuen urtetan.



Ikastolak nire euskara hobetzeko aukera eman dit. Maila profesionalean bat nator Anttonekin, gauza onak gehiago izan dira txarrak baino. Asebeteta nago". Arratek hesi pertsonala gainditu du erronka honekin eta pozik dago horregatik. "Nik ez nuen uste gai izango nintzenik irakasle izateko eta Jakintzari esker irakasle izatea posible izan nuen. Pertsonak ezagutzea eta onartzea eta pertsonak onartuak izan behar direla erakutsi ahal izatea gauza handia izan da niretzat. Eskertuta nago hori guztia-gatik".

Ikastola indartuta uzten dutela diote. Beraiek ere hala doaz. Konpetentzietan oinarritutako curriculumak aldaketa handiak ekarri eta ekarriko ditu heziketa arloan. Ibilbide luzearen amaieran, ikastola ondo bideratuta ikusten dute datozen erronka nagusiei erantzuteko. Jakintzak zer egin behar duen badakiela diote eta beraiek aportatu duten hori guztia ez dela galduko ere badakite. Goitik markatzen diren lan ildoak, guztiok adostuta, etorkizun hobeago baterako bidea direla azpimarratu dute. Giza baliabideak –gurasoak, laguntzaileak, ikasleak eta irakasleak– norabide beran doa, hau da, bada Jakintzan "korporis indartsu bat", eta orain arteko erronkei oso ondo erantzun bazaie etorkizunean izango direnei ere halaxe egingo omen zaie.

Berriz sortuko balitz, aukera bera egingo al zenuteke? "Dudarik gabe".

Bejondeizuela!



MIKEL IGARTUA
(LEGAZPI, 1950-05-07)

Urte hauetan gertatutako anekdota asko ditut gogoan, baina hasierarekin zerikusia duten batzuk aipatu nahi nituzke, gertatu diren aldaketek jabetzeko. Lehenbiziko urtean –1974–, 8. maila –gaurko 2. DBH– inguruko zentroetako ikasleekin osatu zen. Ikastolatik jaso nuen mezua hau izan zen: ikasleak ondo prestatuta atera behar zirela; horrekin ados nengoen eta nago, aurrera begira ikastolak prestigioa hartzeko bidea baita. Hura zela eta, prestatu nuen programa oso zabala izan zen, batxilergoa egitera institutora joaten zirenean ikastolatik pasatutako ikasleen maila ondo ikus ahal izateko. Ez dakit lortu nuen, baina programa emateko denbora izateko azterketak larunbatetan egitera ere iritsi nintzen. Gaur egun, zorionez, ikastolako matrikula kopurua ona da, uste dut prestigioa duela eta horrek poza ematen dit.

Agurtzeko garaian momentu txarrak ez ditut kontuan, norbait inoiz mindu badut barkamena eskatzen diot eta lankide, guraso eta ikasleei hoberena opa dizuet.

Mikel Igartua, Arrate Izagirre y Antton Amondarain suman 120 años de experiencia en la ikastola. Cuando sus trayectorias profesionales están a punto de concluir, recuerdan con orgullo aquellos duros inicios. Coinciden en afirmar que el sentimiento euskaldun y el afán por euskaldunizar fueron el motivo principal que los empujó a iniciar esta próspera andadura. Recuerdan que fueron tiempos difíciles. Tuvieron que hacer frente a muchas carencias a base de voluntad. Se reunían fuera de los horarios lectivos para preparar materiales y compartir experiencias.

Mikel, Arrate y Antton han conocido todos los cambios significativos que han existido en las ikastolas. Destacan la tremenda labor personal que requería su oficio en aquellos primeros años de docencia. La evolución del mundo editorial en euskara ayudó a que la labor fuera más amena. Pero no dudan en destacar que la dureza de aquella primera experiencia les ha servido para aprender y valorar su trabajo. Se llenan de orgullo al recordar la implicación que había en

torno a la ikastola. Hoy esa implicación ha cambiado en los modos. Los padres y madres de los alumnos se desvivían entonces por los quehaceres diarios del centro. Para quien sentía y amaba el euskara era imprescindible sentir aquel proyecto como propio. Hoy ese compromiso sigue vigente, pero la participación de las madres y padres está más ligada a los aspectos educativos de sus hijas e hijos.

Entienden que la motivación y la profesionalización han de ir de la mano. El curriculum basado en las competencias ha motivado nuevos cambios y la ikastola se encuentra ahora en fase de renovación. Antton, Arrate y Mikel no dudan en afirmar que gracias a la buena visión y buen hacer de la dirección, la ikastola de Ordizia se ha convertido en puntera y referencial y subrayan que el futuro de la misma es halagüeño a todas luces.

En estos últimos días en activo les hemos preguntado si volverían a repetir la experiencia. La respuesta es unánime: "Sin lugar a dudas". Eskerrik asko.

Baratza

Udaberrian, urtero bezala, Villa Eugenia hasi gara baratza prestatzen. 5 urtekoen gurasoekin bildu eta laguntza eskatu diegu. Borondate handiz, taldea osatu da eta lurra prestatzeko lanetan jarri dira. Lurra rotabatorarekin pasa eta ximaurtu egin dute. Dena dago prest landareak aldatzeko.

Iritsi da haurren txanda. Azokara abiatu gara talde guztiak, letxua eta marrubi landareak erostera. Banan bana erositako landareak aldatzeko garaia iritsi da. Txoriek gure lana errespetatu dezaten, ingurua koloredun plastiko pusketekin inguratu dugu, alai-alai gelditu da. Bareentzako botika ere botatu dugu.



Noizean behin ureztatze lanetan ibiltzen gara, beste batzutan belar txarrak kentzen, letxua eder-ederrak izan ditzagun

eta handiak egiten direnean, etxera eramango ditugu entsalada goxo-goxoak egiteko.

Como todos los años, con la llegada de la primavera y con la ayuda de un grupo de padres de HH 5 se ha preparado la huerta en Villa Eugenia

Los alumnos participan tanto en la plantación de las semillas como en el cuidado y recolección de hortalizas y frutos.

Este verano sí que tendremos ocasión de comer excelentes ensaladas!

Eskola Agenda 21: azken ekimenak

Eskola Agenda 21 programaren barruan, azken hiruhileko honetan pauso garrantzitsuak eman ditugu. Apirilaren 20an, Ordiziako hiru ikastetxeetako ikasleok IKASLEON ARTEKO FOROA deituriko ekimenean bildu ginen. Bertan, Udalari aurkezteko proposamenak adostu genituen. Modu berean, lau ikasturte hauetan landutako gaien inguruan antzeman ditugun arazoei aurre egiteko konpromisoak ere zehaztu genituen.

Bestetik, maiatzaren 18an, alkatearekin bildu ginen. Hona aztergai izan genuen gai zerrenda: garraio bideek sortzen dituzten trafiko arazoak, ikastetxeetako sarreretan ematen diren kotxe pilaketak, kutsadura, bidegorria, konposta, jostailu bilketa egiteko lokala, herriko berdeguneak, skate-parkea...



Etxean, ikastetxean eta herrian ditugun arazoei irtenbidea ematea denon ardura dela ondorioztatu eta gero, Udalari herritarrak kontzientziatzea eta neurriak ipintzea eskatu diogu. Denon artean Ordizia geroz eta herri jasangarriagoa izan dadin nahi dugu. Ez ahaztu, **"Nolako ohiturak, halako herria"**.

Dentro del proyecto Agenda 21, el pasado 20 de abril los representantes de los tres centros educativos de Ordizia tomaron parte en el "Foro Interescolar" y acordaron las propuestas y compromisos adquiridos para presentar en el ayuntamiento.

El 18 de mayo se reunieron con el alcalde y allí tuvieron ocasión de plantear a las autoridades locales distintas soluciones para mejorar nuestra calidad de vida. Además del compromiso de minimizar el uso del automóvil y potenciar la utilización de otros medios de transporte, se trasladaron diferentes propuestas con el fin de impulsar el uso del bidegorri, compost, local para recogida de juguetes, pista de skate...

Gu ere bertsolari

Joan den hilaren 19an, gure 5. eta 6. mailako ikasleek, Urdanetakoeekin batera, bertso jaialdi bikaina eskaini ziguten Herri Antzokian.

Emanaldi hau, ikasturte osoan zehar bertsolaritzaren inguruan egindako lanketaren amaiera izan da. Izan ere, irakasle eta bertsolaria den Amaia Agirre astero etorri da, gure ikastolara ikasleak hitz, doinu eta errimekin jolas daitezten animatzera. Bi astez behin aritu dira Amaiarekin. Berarekin ikasi eta ekoiztutakoa senide eta lagunaren aurrean agertu nahi izan dute.

Aurten bi emanaldi eskaini dizkigute, 5. mailakoak alde batetik eta 6. mailakoak

bestetik. Oso gai ezberdinak jorratu zituzten; Zuberoako makil dantza, ikasturte amaierako bidaian gertatutako pasadizoa, urtebetzetako meriendak, alfabetoa, Ordiziako peria, mendizaleak Txindoki bidean...



Urduritasunak sortutako zirrarrari kemenez eta ilusioz egin zioten aurre, emaitza paregabea lortuz. Zorionak guztiei!

Como colofón al trabajo realizado a lo largo del curso, con la colaboración de la profesora y bertsolari Amaia Agirre, el pasado 19 de mayo, los alumnos de 5ª y 6ª, nos ofrecieron un festival de versos en el Herri Antzokia. Se celebraron dos actuaciones interpretando diferentes temas: la feria de Ordizia, Zuberoako makildantza, aventuras vividas en la excursión de fin de curso....

Superados los nervios ofrecieron una brillante actuación. ¡Enhorabuena!

Herrigintzan

Jakintzako ordezkariak, beste ikastetxekoekin batera, alkatearekin bildu ziren Eskola Agenda 21eko entzunaldian. Ikasleek urtean zehar Agenda 21aren inguruan egindako lana eta hartutako konpromisoak azaltzeaz gain, galderak eta eskaerak egin zizkieten alkateari.

Besteak beste, gazteek trafiko arauak errespetatu eta herrian oinez ibili edo garraio publikoa erabiltzeko konpromisoa hartu zuten.

Udalari luzatutako proposamenen artean, honakoak: herritarrak kontzientziatu autoa gutxiago erabil dezaten, bidegorria bukatu, autoen zarata arazoak saihestu, zabor organikoak biltzeko ontziak ipini, zona berde gehiago etab.



Iazko gaietatik erantzunik izan ez dutenak ere gogoratu zituzten: garraio publikoaren prezioak jaitsi, ordutegia zabaldu, N-1 errepidean panel-isolagailuak jarri, skaterako parke berria...

Adostutakoa aurrera eramateko konpromisoa hartu zuten guztiek.

El pasado 18 de mayo los alumnos de Jakintza se reunieron con el alcalde y además de mostrar los trabajos y compromisos adquiridos a lo largo del curso, tuvieron ocasión de plantearle distintas soluciones para mejorar nuestra calidad de vida.

Recordaron al alcalde los temas pendientes del curso anterior: abaratamiento del precio y ampliación de los horarios del transporte público, colocación de paneles aislantes en la N-1 y construcción de la pista de skate.

Los jóvenes se comprometen a respetar las normas de tráfico y a usar el transporte público.

Hiri hezitzailea

Udalak eta EHU/UPVk sustatzen duten proiektuaren barnean hainbat ekitaldi egin dira azken hiru hilabeteetan. Lehendabizikoa, apirilaren 26an. DBH 1eko komunikazio taldea, Mainer Bartolomeren gidaritzapean, Ordiziako jubilatuen etxera hurbildu zen.

15:30etarako, jubilatuen etxeko Batzar Aretoa leporaino beteta zegoen eta ikasleen zain zeuden aiton amona eta/edo gurasoak. Oholtza gainean, antzerki mutuak eskaini ziren eta gorputz espresioaren bidez, bertara hurbildutakoen arreta lortu zuten antzezleek.

Bigarrena, maiatzaren 25ean egin zen. Ordiziako dozena erdi jubilatutako etorri zen Jakintza ikastolara eta lehengo eta oraingo

eskola ereduari buruz jardun ziren DBH 4ko ikasleekin. Aurrez, "El florido pensil" pelikula ikusi eta aztertu zuten.

Hirugarren ekitaldia, maiatzaren 31an burutu zen. DBH 2ko ikasleak bigarren bisita egingo dute Ordiziako jubilatuen etxera. "Lehen, orain eta geroko eskola" antzezlanaren eskaini zuten Ordiziako jubilatuen egoitzan.

Aurtengo ikasturteari amaiera emanez, ekainaren 14ean Ordiziako jubilatuen abesbatza, Jakintzako abesbatza eta Urdanetako perkusio taldea elkartuko dira.

Dentro del proyecto "Ordizia Hiri Hezitzailea" impulsado por el Ayuntamiento de Ordizia y la

EHU/UPV se han llevado a cabo varios proyectos. Los alumnos del taller de comunicación de 1º y 2º ESO representaron en el hogar del jubilado, bajo la dirección de Mainer Bartolome, varias obras de teatro.

Los jubilados tuvieron también ocasión de acercarse a nuestro centro y compartir con los alumnos de 4º ESO sus vivencias sobre la enseñanza en su época. Previamente los alumnos habían trabajado la película "El florido pensil".

Por último, el día 14 de junio se reunirán el Coro de jubilados de Ordizia, el Coro de Jakintza y el grupo de percusión de Urdaneta para despedir este curso.

Hauek bai konpetenteak!


3. mailako ikasleek lan bikaina burutu dute. "Matematika Dialogikoak" izeneko saioretan kokaturik dago proiektua, baina matematika ez ezik, beste arlo asko jorratu dituzte. Euren gelari beraiek aukeratutako diseinua eman diote. Proiektuaren helburuak hauek lirateke: egiten eta ekiten ikastea; elkarrekin bizitzen ikastea; eta norbera izaten ikastea.

Lehen urratsa proiektu beraren hautaketa izan zen. Ateratako ideia guztietatik hautaketa egin, irizpide ezberdinak aintzat hartuz, hau da, aukera errealak, irizpide ekonomikoak... Gero ideia sorta hautatu eta planifikazio orokorra egin. Taldeetan

banatu lana eta aurrera eraman. Kalkulu konplexu ugari egin behar izan zituzten: planoak, neurketak, aurrekontuak... Gela margotzeko kolorea hautatzeko Rakel Legorburuk lagundu zien.

3. mailako neska mutilek eskerrak eman nahi dizkie proiektu honetan inplikatu diren guztiei.

Los alumnos de 3º han realizado un trabajo excelente: la redecoración total de su aula. Para ello, tuvieron que elegir entre las diferentes ideas sugeridas en el grupo, realizar cálculos matemáticos complejos, mediciones, planos... Contaron también con



la colaboración de Rakel Legorburu para el diseño de la decoración.

Los alumnos/as de 3º agradecen la ayuda recibida por todos los que han colaborado con ellos en la realización de este proyecto.

Piropo lehiaketa eta Jakintza

Aurten ere DBHn eta DBHOn Ordiziako Udalak, Euskara Aholku Batzordearen bidez, "Piropo Lehiaketa" antolatu du. Aurrez, gure ikasleek "Lagunarteko Hizkera" landu zuten zenbait klasetan eta hori baliagarri gertatu zitzaizen piropoak prestatzeko eta aurkezteko.

Epai-mahaiak piropo guztiak aztertu ondoren, 14-16 urtekoen artean, hauxe hautatu zuen guztien artean: "Zure ezpainei zerbait falta zaie, nireak ote?". Piropo hori Jakintzako ikaslea den Oihana Aldasorok aurkeztu zuen. 16 urtetik gorakoen artean 2. saria lortu zuen baita ere Jakintzako ikaslea den Beñat Irastorzak. Hauxe bere piropoa: "Orkliko berogailuak negoziarik gabe utziko dituzu martxa honetan..."

Eta lehen saria, oro har, Jakintzako ikasleak lortu zuenez, sari banaketa Jakintzako Areto Nagusian egin zen. Saioari bizitasuna emateko Goenkaleko artista ezaguna, Joseba Usabiaga (Tximista) izan genuen gurekin.

Ea hemendik aurrera ere ekimenak balio duen ikasleak jabe daitezten euskara ikasteko tresnaz gain, bizitzako atal eta eremu guztietan komunikatzeko ere balio duela eta horrela eginez gero, gure euskalduntasuna gorpuzten ari garela.

En el concurso de piropos que reliza el Ayuntamiento de Ordizia para los alumnos de 2º ciclo de la ESO y Bachillerato, Oihana Aldasoro y Beñat Irastorza han conseguido el

1º y 2º premio en sus respectivas categorías.

El reparto de premios se celebró en Jakintza y para animar el evento se contó con la actuación de Joseba Usabiaga, conocido actor de Goenkale, quien animó a utilizar el euskera en el día a día.



Iritsi ziren erromatarrak Euskal Herrira?

Erromatarren eragina askok uste dutena baino sakonagoa izan omen zen Euskal Herrian. Azken aldian garai hartako aztarna asko ari dira aurkitzen. Erromatarren hiriak ere bazuuden Euskal Herrian. Horien artean, Oiasso.

LHko lehenengo mailako ikasleak, Txanela proiektuaren barnean, Erroma garaira bidaiatu dute. Gehiago ikasteko asmotan, bidaia birtualean gelditu ordez, "Oiasso"-raino joan dira.

Oiasso Gipuzkoan egindako aurkikuntza arkeologikorik garrantzitsuen da. Bertan

"Oiasso museoa" dago, erromatar garaiko aztarnak biltzen dituen. Honek aukera eskaintzen du erromatar munduaren inpaktua gizarte indigenean ezagutzeko, portuaren aurkikuntza arkeologikoa eta hiriko bizimodua gure aroko I. eta II. mendeetan.

Gure txikitxoentzat prestatuta dituzte aktibitate didaktiko ezberdinak, horien artean jolas kooperatiboak, non guztiek parte hartzen duten elkarren artean kolaboratuz. Bertako gidariak oso adeitsu izan dira eta azalpen ezin hobek eman dituzte. Gure eskerrak!

Dentro del proyecto "Txanela", los alumnos de 1º de LH han trabajado la influencia de los romanos en el País Vasco y han comprobado que fue mucho mayor de lo que nos imaginamos. Para ello han visitado Oiasso con el propósito de observar los descubrimientos arqueológicos de dicha época.

Oiasso es el descubrimiento arqueológico más importante de Gipuzkoa. Allí se encuentra un museo con los restos romanos.

Tuvieron ocasión de realizar actividades didácticas y juegos cooperativos.

Ikastolaren Eguna

Iratzargailua jo orduko altxatu naiz ohetik eta familiarentzat gosaria prestatzen hasi naiz. Zenbat lagun elkartuko garen gaur! Ahal dudan guztiekin egotea gustatzen zait. Ea, ahaztu gabe, Antton, Arrate eta Mikelekin egoten naizen, erretiroa hartzekotan dira eta.

Esnea berotu, tostadak, gailetak eta gurina mahaira atera eta seme-alabei deitu diet. Mendiko ibilaldiak antolatzen dituztenak ere zoriontzeko moduko lana egin dute. Ea zoriontzen ditudan.

Emaztea ere altxatu da, Ainhoa eta Ikerri deitu diet eta arrapaladan etorri dira. "Aita! Ama! Gaur badakizue zein egun den!", oihukatu dute biek. Saritan ere ez gara atzean ibili: Urruzuno, Barriola, IKTroak...



Elkarrekin gosaldtu dugu. Gai bakarra zegoen mahaian, gaurko eguna. Proiektu asko eraman ditugu aurrera, zein baino zein hobek. Horregatik gustatzen zait ahal dudan gehienekin egotea.

Bazkaritarako ez dugu gose handirik ekarriko eta entsalada arin bat jarriko dugu.

Eskolaurrean ere a ze baratza duten, nolako letxugak. Hor ere arituko zen norbait, ba. Asko egin dugu aurten, eraikuntza berriak, Agenda 21eko lan mardula, bertsolariak, irrati saioak, belaunaldien arteko bizipenak...

Ene, hamarrak dira ia eta! "Gozen!", deiar egin du Ikerrek. Ateak itxi eta herri erdirantz abiatu gara gure eguna ospatzera, izan ere, gaur ekainaren 19a da: GURE EGUNA. JAKINTZA IKASTOLAREN EGUNA.

El día 19 de junio Jakintza celebró su fiesta anual y en ella no faltaron emotivos momentos en las diferentes actividades que se llevarán a cabo a lo largo de la mañana. Payasos, juegos y deporte rural sirvieron para amenizar una buena mañana.

Garazi Otegiarentzat aurtengo Ohorezko matrikula

Bazoazte batxi 2-koak; ez da makala utzi duzuen arrastoa! Ikasle bikainak, langileak, helduak, nortasun handikoak, biziak –batzutan biziagiak– eta gehienak nerabetasunak pildpilean harrapatu zaituztenak.

Gaur Garazi Otegi dugu aipagai, Euskal Herriko Unibertsitateak eskeintzen duen Ohorezko Matrikula bereganatu baitu. Gure ikasle kopuruari matrikula bakarra egokitzen zaio, hala ere, aurtun beste hiru ikasle matrikularako baldintza bete dute: Laura Zabala, Irune Agirre eta Julen De La Cuesta... Beraz, guztioi, ZORIONAK!

1- Zerk motibatzen zaituzte hainbeste ikasteko?

Garazi: Bueno, beti ez dugu –edo ez dut– ikasteko motibaziorik edukitzen. Ikasteko gogoia edo motibazioa baldin badut ikasketek bide asko irekitzen dituztelako da. Hezkuntza on bat jasotzeko zortea ere badugu eta hori estimatzekoa dela ere kontuan izateak laguntzen du pixka bat.

Irune: Ez dut liburuen aurrean denbora asko ematen dudan sentsaziorik. Ikasteari tarte bat eskaintzen diot, bai; baina lagunekin egotea, kirola egitea eta interneten aritzea ere oso gogoko ditut, nire bizitza ez da ikastera mugatzen. Motibazioari dagokionez, betidanik gustatu izan zaizkit giza zientziak eta hori ikasterakoan abantaila bat izan da. Beti da xamurragoa gogoko duguna ikastea.

Laura: Medikuntza ikasteko asmoa nuenez, eta nahiko nota altua behar dudanez, aurrera jarraitzeko eta ikasteko motibazio handiena izan da. Gainera, examinak egin eta zeure esku zegoen hori egin duzula jakiteak lasai uzten du bat bere buruarekin.

Julen: Batez ere matrikula lortzen saiatzeak eta espediente ona lortzeak.

2- Zuen burua "enpoiloi"-tzat al duzue?

G: Ba ez dakit. Agian bai.

I: Ez.

L: Jajaja, ez dut horren irudia. Egia da ikasi



Laura Zabala, Julen De La Cuesta eta Irune Agirre Garazi Otegi besoetan dutela.

dudala (batez ere examinak hasi baino aste bat lehenago), baina lagunekin gozatzeko denbora izan dut soberan.

J: Ez, agian ez dut besteek baino denbora gehiago ikasten pasatzen baina probetxu gehiago ateratzen diot.

3- Bi urtez geroztik ikastolan; oroitzapen aipagarriarik bai?

G: Kurtso bakoitzean eta irakasle bakoitzarekin oroitzapen bereziak ditut, baina aipagarriarik aipatu beharrez gero Salou inguruan izandakoak, Arantxa eta Mikelekin Osasunkume saria irabazitako bidaia egin genuenean, eta gero DBH4ko ikas bidaia egin genuenean, Ana eta Idoiarekin. Oso oroitzapen onak ditut.

I: DBHraino gehien gogoratzen ditudan eguneroko jardunaren monotonía hausten zuten irteerak dira. Batxilergoan harremanak estutu, indartu, egin dira. Taldea taldeago sentitu dut, lagunak lagunago. Irakasleak ere oso gertu sumatu ditu. Hori da Jakintzaz gogoratuko dudana.

L: Askok, batez ere lagunekin igarotako une berezi guztiak. Gogoan izango dut batez ere abenduan ospatu genuen festa berezia: Aitor gitarra eskuan, eta denak bere inguruan,

"Hotel California" jotzen; neska guztiak buila batean sing star-eko abestiak koreatuz...

J: Ez dakit zer aipatu, gauza asko egon dira.

4- Zer aholkatuko zenieke batxi hasi behar duten ikasleei?

G: Gustoko duten horietan lana egitea eta hain gustoko ez dituztenak albo batera ez uztea. Denak gustoko badituzte ezin hobeto, eta bat ere gustatzen ez bazaie gaia interesgarri egiten saiatzeko.

I: Modalitatea ondo aukeratzea garrantzitsua da. Lanean gusturago arituko dira eta hori emaitzetan islatu egingo da. Garrantzitsua da egunean eguneko egitea, lanean konstantziaz aritzeak saria izaten baitu gehienetan.

L: Mila aldiz entzuna izango dute egunero lan egin behar dela, baina hori oso zaila da, gutxi batzuk lortzen dute. Oso garrantzitsua iruditzen zait bakoitzaren jokaera, baikorra izan behar du arlo guztietan, baita horren gustoko ez ditugunekin ere. Ondoren betikoa, klasean adi egotea, dudak segituan galdetzea...

J: Ikasketetan gehiago zentratzeko. Batzuek ez dute ikusten batxilergoko notek duten garrantzia eta askotan aprobatazea ez da nahikoa.

¿Qué os motiva para estudiar tanto?

Garazi: Estudiar abre muchos caminos, y saber la suerte que tenemos de poder recibir una educación también es fuente de motivación.

Irune: Mi vida no se reduce a estudiar, tengo tiempo para otras cosas.

Laura: Quiero estudiar medicina y eso me ha dado fuerzas para estudiar.

Julen: El conseguir la matrícula y un buen expediente.

¿Os teneis por "empollones"?

G: Pues, no sé, igual sí.

I: No.

L: No tengo esa imagen. Es verdad que he estudiado pero he tenido tiempo de sobra para estar con mis amigos.

J: No, igual no paso tanto tiempo como los demás pero le saco provecho.

¿Algun consejo para los que empiezan en Batxi?

G: Esforzarse en las asignaturas que les gustan y no dejar de lado las otras.


I: Es muy importante elegir bien la modalidad. El trabajo diario es importante también.

L: Trabajo diario, optimismo, atender en clase y preguntar las dudas.

J: Centrarse en los estudios.



1983an jaiotakoak Karmele Barandiaran irakaslearekin.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net



PARTAIDE



Ikastola Elkarte